

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Artazu



Aurkibidea

Udalerria: Artazu

Sarrera



Artazu Nafarroako udalerria da. Nafarroa erdialdean dago, Lizarrako merindadearen ekialdeko muturrean. 121 biztanle zituen 2012ko urtarilaren 1eko erroldaren arabera. Nafarroako hiriburutik 29 kilometrora eta Garestik 4 kilometrora dago. Artazuk Garesekin eta Girgillaorekin egiten du muga iparraldean, Garesekin ekialdean, Mañerurekin eta Girgillaorekin mendebaldean, eta Mañerurekin eta Garesekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 120
- **Euskaldunak:** -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **35**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **35**

Proiektuak

- Gazte gara gazte

Hizlariak

Lur Albizu Etxetxipia (1993)



1993 urteko uztailaren 25ean jaio zen Lur. Iruñean bizi izan zen 7 urte bete arte, eta Artazura bizitzera joan ziren gero. Ikasketak direla eta Gasteiz, Baiona eta Mexikon ere bizi izan da, baina denbora tarte murriztez, beti ere. Iruindarra du aita, eta Artazukoa ama. Anaia du, gazteagoa. Euskal Ikasketak amaitzen ari zen Gasteizen elkarrizketa egin genionean. Musika ikasketak eginak ditu ere, Iruñean, gradu erdiko titulazioa. Ziraukiko Artzai Gasparrekin batera egin genion elkarrizketa, eta kontu pila ibili genuen: ikasketak, Nafarroako eremu “ez euskalduna”, parranda, korrika, herrigintza, musika eta beste hainbat.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolarako joan-etorriak (ATU-001/002)

Artazutik Garesera lehenik, eta Artazurik Zizur Nagusira gero; eskola-garraioa zein garraio publikoa erabiliz, etxetik eskolarako joan-atorriak.

2. Musika ikasketak Garesen hasi Iruñean bukatu (ATU-001/004)

Iruñeako "Pablo Sarasate" Musika Kontserbatorio Profesionalean amaitu zituen Lurrek Garesen hasitako musika ikasketak, gazteleraz egin zituen lehenak.

3. Iruñea Taldea fanfarrean soinu jotzen (ATU-001/006)

Lurrek jende asko ezagutu du musikari esker. Hasieran, kontserbatorio barruan; eta Gipuzkoan barrena eta Iruñea Taldea fanfarrean gero.

4. Musika ikasketak eta sormena (ATU-001/008)

Lurrek egindako musika ikasketetan bide ematen zitzaion sormenari ere

5. Akordeoia etxean da (ATU-001/009)

Musika ikasketak bukatu zituenetik ez du akordeoia apenas ikutu. Bisita bat zor dio.

6. Euskal Ikasketak Gasteizen (ATU-001/011)

Gasteizen ikasle-pisuan bizi izan da beti Lur, eta ezagunekin konpartitu izan du, gainera, baina ez beti jende berarekin.

7. Iruñea eta Gasteiz oso gustuko (ATU-001/013)

Aldea dago herri txiki batean bizitzetik hirian bizitzera. Iruñea eta Gasteiz hiri txikiak dira, hala ere, eta erosoak oso, bial ala biak.

8. Asteburutan Artazura buelta (ATU-001/014)

Euskal Ikasketak egin bitartean asteburutan jaioterrira itzultzeko joera izan du Lurrek, hartara lotzen duten hainbat kontu ditu eta.

9. Lizarra eta Iruñea artean dago Artazu (ATU-001/016)

Batetik bestera 4 kilometro besterik ez dauden arren, bailara bitan daude Gares eta Artazu, eremu "erdalduna" eta "mixtoa" delakoen muga, hizkuntza eskubide batzuk agertzen eta desagertzen diren lurraldean.

10. Euskaraz nahi eta ezin (ATU-001/018)

Hizkuntza zonifikazioa eta hizkuntza errealitatea.

11. Jeloskortasuna lantzeko tailerra (ATU-001/020)

Askotariko gaiei buruzko hitzaldi eta tailerrak antolatzen dituzte Garesen eta inguruko herritan.

12. Jeloskortasuna eta amodio erromantikoa (ATU-001/022)

Gizarteak eraikitako kontua da jeloskortasuna, berezko sentimena baino. Gai jakin baten gainean hausnartzen jartze hutsa aurrerapausoak ematea da.

13. Erasmusean Baionarat (ATU-001/024)

Gasteizen Euskal Ikasketak egiten ari zela, Baionan egin zuen ikasturte bat Lurrek. Iparraldea ezagutzeko aukera izan zen Lurrentzat.

14. Iparraldean parranda handia dago (ATU-001/025)

Gaztetxe asko dago iparraldean, eta asteburutan batean ez bada bestean izaten da zer edo zer antolatuta.

15. Iparraldeko herri mugimendua (ATU-001/027)

Aitzina gazte mugimendua, gazte asanbladak, gaztetxeak, EH Kazeta web gunea, Euskal Irratiak... herri mugimendu handia ezagutu du Lurrek.

16. Kalean ezin alkoholik edan (ATU-001/031)

Ikasketa mailako elkartruke bat medio joan zen Lur Mexikoko Pueblara, eta arreta eman zion kalean edatea guztiz debekatuta egoteak.

17. Euskararen egoera Artazu eta inguruko herrietan (ATU-001/033)

Lurrek etxetik jaso du euskara. Artazu inguruan gazteek jakin badakite euskaraz, eta euskaltegietan jende asko ari da euskalduntzen, baina erabilpen maila baxua da.

18. Asanblada feministan lanean (ATU-001/035)

Garesen eta inguruko herritan eragiten saiatzen dira, genero berdintasuna lan-ildo hartuta.

19. Gasteiz: euskaraz egiteko aukera (ATU-001/037)

Lurrek Euskal Filologia ikasketak egin ditu Gasteizen, eta beretzat arnagune da Arabako eta EAEko hiriburua.

20. Gasteizen jende "kañero" asko (ATU-001/038)

Lurrek jende "kañero" asko ezagutu du Gasteizen, hainbat tokitakoak, eta baita mugimendu feministari lotutakoak ere.

21. Herri-mugimendua (ATU-002/005)

AEK, Korrika Kulturala,

22. Korrika eta Korrika Kulturala bailaran (ATU-002/007)

AEKk antolatzen duen Korrikak arrastoa uzten du bailaran.

23. Korrika Kulturallean gazte gutxi (ATU-002/009)

Korrika Kulturalaren jiran antolatzen diren ekimenetan gazte gutxi sumatzen da; Korrika bailaratik igarotzen denean, aldiz, adin guztietako jendeak parte hartzen du.

24. Gazte Euskaldunen Sarea (ATU-002/011)

Izarbeibarko gazteak euskararen jiran batzea du helburu, eta gazte orori euskaraz egin ahal izateko aukerak eskaintzea, eta horretarako abaguneak sortzea. Mañeru, Mendigorria, Zirauki, Artazu eta Gareseko jendea biltzen du Gazte Euskaldunen Sareak.

25. Futbolaren eta IKTen arrakasta (ATU-002/013)

Futbolak jende asko biltzen du Izarbeibarren. IKTak gazteen bizitzaren parte dira.

26. Facebook, Twitter eta Whatsapp (ATU-002/015)

Facebook, Twitter eta Whatsapp dira Lurrek eta Artzaik gehien erabiltzen dituzten sare sozialak.

27. Irakurzaleak (ATU-002/019)

Irakurzaleak dira Lur eta Artzai. Artzaik argi du ez dela eskolan zaletu, bestela baizik.

28. Irakurzaletasunaren sustapenean kale (ATU-002/021)

Lur eta Artzairen kasuan hezkuntza sistema barruan jaso duten irakurzaletasuna sustatzeko ahaleginak kale egin du; euren ustez, ez dago gozamenera bideratua.

29. Poesia irakurtzen (ATU-002/023)

Poesiarekin gozatzeko ez da zertan aditu izan.

30. Berri Txarrak taldearen zale sutsuak (ATU-002/025)

Betidanik maite izan dute Berri Txarrak taldearen lana, nola hitzak, hala musika.

31. Berri Txarrak taldearen kanten hitzei buruz (ATU-002/028)

32. Parranda perfektua Gasteizen (ATU-002/035)

Parranda perfektuak nolakoa behar lukeen galdetuta, Lurrek ematen ditu azalpenak; Gasteizen kokatu du, gainera.

33. Ligatzekotan, mozkorrik (ATU-002/037)

Euskal Herrian parrandan ligatzen da gehien; baina bai ote dakigun bestela harremanetan hasten...

34. Kuadrillismoa (ATU-002/041)

"kuadrilla"tan ibiltzearen aldeko eta kontrakoak.

35. Eskola Txikiak (ATU-002/044)

Artzairen ustez positiboa da adin ezberdinetako haurrek gela berean ikas dezaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com